



SORALUZE "INTERPUEBLOS"
finalian sartzeko atarixan

ARRATE AZKONA
Espainiako txapeldun

Soraluzeko aldizkaria

36. alea

2001eko ekaina

San Andres Jaixak 2.001

Egitarau bero eta erakargarrixa

6 HILEBETERAKO
UKIPEN-LENTEAK

14.900 PTA.N
BAKARRIK
89,55€



Multilens Pack Berria

Eta gainera, bidai **POL TSA BAT OPARI**

Multipackean hauek sartzen dira:
Hilean behin aldatzeko Multilens lentineen 2 kaxa, Multidisoluzio bakarrek
edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

BAUSCH
& LOMB
CIBA
Vision
A Novartis Company


MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA **EIBAR**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792595 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Eng - Tel. 943689988 - ORDIZIA

Bidebarrieta, 2
Tel. 943200522
EIBAR

3 hilabetea ordaindu errekargurik gabe
www.multiopticas.com

Promoziok 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Soraluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketia

10
GONBIDAPEN

MUTRIKUN KAYAKEAN IBILTZEKO
AUKERA BIKAINA. BAZKIDIAK
LEHENTASUNA. DEITU!!



PIL PILEANEK ETA MUTRIKUKO ARRAUN TALDIK, UDA HONETAN MUTRIKUN, KAYAKIAN DOHAINEKO IBILALDIXAK EGITTEKO 10 GONBIDAPEN ZOZKETATUKO DITUZTE HIL HONETAN. GONBIDAPENETAKO BAT LORTZEKO, 943 75 13 04 TELEFONORA DEITU ETA ZOZKETAN SARTUKO ZARA(LAGA TELEFONUA).


DEITTUTAKUEN ARTIAN ZOZKETA EGINGO DOGU ETA PIL PILEANEKO BAZKIDIAK IZANGO DABE LEHENTASUNA. BAINA BESTIOK BE BADAUKAZUE AUKERIA.

GONBIDAPENIK TOKATZEN EZ BAJATZUE BE, EUTSO MUTRIKUKO ARRAUN TALDEKO TELEFONUA; 943 12 01 08. UDA HONETAN, MUTRIKUN EGUN EDER BAT PASATUAZ, ITSASUAN, KAYAKIAN (700PEZETAORDUA) ETA BATELETAN (6.000 PEZETAEGUNA) IBILTZEKO AUKERA PAREGABIA DAUKAZUE. ANIMATU ETA GOZATU ITSASOAZ.

Mutriku Arraun taldea eta Pil Pilean elkarlanean



Ugaraxo



2.001eko Ekaina 1. alea

Plentzi H. I. eta Pil Pilean aldizkarixa elkarlanean

XETA eta KEI Ugaraxoekin jolasean

Aurtengo ikasturtearen bukaeran sorpresa bat izan dugu. Maitzaren 25ean areto nagusira lagun berri bat etorri zitzaigun. Berak bere burua aurkeztu zigun, guk ez bait genuen ezagutzen. Nor zen? Ba XETA.

Nor den XETA? Hona hemen bere aurkezpena:

Kaixo:

Ni XETA ugarazoa nauzue, beno, ugarazoen kumea. Ugarazo bat zer den? Xakel eta igel izenez ere ezagutzen gaituzue, igerian trebeak eta lehorrean jauzika ibiltzen gara.

Nirekin KEI ibiltzen da, biok Soraluzeke Keixeta errekatxoan jaio ginen. Bera zaharragoa denez KEI deitzen da eta ni lehen esan bezala XETA.

Ba al dakizue Keixeta errekatxoa non dagoen?.

Ba bai. Keixeta errekatxoa San Andres auzotik behera, korrika eta presaka jeisten da Deba ibaiarekin bat egiteko gogoaz. Olean elkartzten da berarekin.



Nire familia beti Keixeta errekatxoaren inguruan bizi izan da, senide asko ditut bertan. Beti oso garbi, txukun egon izan dira bazter guztiak, eta badakizue zer? Ni txiki-txiki-txikia nintzenean Oleako presan herriko neska-mutilak, eta gizon-emakumeak igerian nola ikasten zuten eta bainatzen ziren ikusten nuen. Batzuk ikasi nahian demaseko komeriak erabiltzen zituzten. Gogoratzen naiz neska beltzaran batek nola egiten zuen igeri txakurrek bezala korrika korrika bazterrera iristeko. Beraiek ikusten oso ondo pasatzen nuen.

Neska-mutil koadrila batek berriz, Begoña, Luis, Mertxe, Etzoz, Inaxio, Xabier, MariaPilar, Elias, Pili, Tere, Maribi, Joxepi, Luis Mari, Ana, Patxi, Sabino, Lurdes, Marialui, Bixente, Marga, Pedro Mari, Txomin,.... gurekin, ugaraxoekin, jolastea nahi izaten zuten. Gu hartu eta janaria ematen ziguten, a zer nolako bokadilo ederrak izaten zituzten. Batzutan asko jaten genuen, badakizue zergatik? Entzun entzun.

Bigarren orrialdean jarritzen du

Neska-mutil hauek ibai ertzean, Deba ibaiaren ertzean, harri gainetatik saltaka, batetik bestera, mugitzen ziren gu geunden putzu handietaraino iristeko. Makurtu eta eskuekin saiatzzen ziren gu harrapatzen gero pote huts batetan sartzeko, baina.... askotan harri gaineko berdiñarekin irrirts egiten zuten eta uretara jausten ziren gurekin batera uretan murgilduz. Horrelan, uretan busti ondoren, erakutsi zidaten hitzegiten, euskaraz hitzegiten. A zer nolako farre eta algara, eta bokadiloa jausten bazitzaien a zer nolako tripakaria egiten genuen. Eta guztiei bustita zeudela adierazteko hau abesten zuten:

“AMA MURGIL

ZEINENDAKO

TXOMINENDAKO”

(bustita zegoenaren izena aipatzen zuten)



Askotan, etxera joaten zirenean, amak abestia entzunda zuenez zain egoten zen Txomin, Mertxe....ri errietan egiteko.

Eta orain berriz.... ez zaituztet ezagutzen, ez bait zarete presara jolastera, txisteak kontatzera, murgiltzera, saltoak egitera etortzen. Zer gertatzen da? Ah, uste dut badakidala.

Gizakiok, ibaia asko zikintzen duzue eta ezin zarete bainatu, eta ur tragoren bat egin ez gero!! Puaff!! Eta gu? Gu ere errekatxo garbien bila ibiltzen

gara eta Deba ibaira ez gara asko hurbiltzen.

Baina, oso asperturik aurkitzen naiz, lagun askorekin jolas egitea nahi dut lehen bezala farre, algara, saltoak, murgildu, euskaraz hitzegin, abestu, ipuinak kontatu, igeri egiteko. Zuek nahi al duzue nire lagunak izan?

Nik nire lagunak aurkeztuko dizkizuet, laister nire adiskide handi bati esango diot etortzeko zuek ezagutu dezazuen. A baina, nik ez dizuet esango nor den, elkarrizketa baten bidez zuei ezagutzeko aukera emango dizuet, denon artean asmatzeko nor den, zer egiten duen.... Bakarrik ni bezala oso kirolari trebea, txapeldun handi bat eta oso euskalduna dela esango dizuet. .

Beraz presta itzazue okurritzen zaizkizuen galdera guztiak, jakitea gustatuko litzaizueken guztia: Zer izen duen, non bizi den, zenbat urte duen

Prestatutako galderak zuen irakasleari eman iezaizkiozue.



Editoriala

Aupa Soraluze :

Badator udia, eguraldi beruak bebai, baina gu, berotu eta erre barik ibiltzen ahalegintzen gara, zuetako askoren moduan.

Datorren astian dira San Andresak eta eurak izan dira ekaineko ale honetan lekuri gehixen hartu doskuenak. Badakigu aurten ahalegin haundixa egin dabela jai on batzuk preparatzen eta horregaittik, eta osatu daben egitarua benetan intresgarria pentzau jakulako, erabaki dogu gai hori sakontzia ale honetan.


San Andrestarren eta Plaentziarren gozamenerako, aisialdi leku bikaina geratu da Karakatera bidian. Auzoko jentiaeren lanak eta ahaleginak, fruitu berezi hau ekarri dau eta pozteku da. Bete betian asmatu dabelakuan gare.

Beste gai bati helduta, euskalgintzan herriko kultur azpiegituraren gaineko gogoetatxo bat hasi dogu. Etera dogun ondorixuetako bat, 4.000 biztanle eta 20 elkarte baino gehixago dituan herri baten, talde horiendako lokal duinik eta Kultur Etxerik ez izatia penagarria dala izan da. Halaxe da. Izango dira aukerak zerbait egiteko, guk hala uste dogu eta halaxe eskatuko dotsagu Udalarari ganorazko txosten bat prestatuta. Ia danon artian gure herrixari kultur azpiegitura on bat emoten dotsagun, daguana mantentzeko ez bada be.

TELEGRAPAK:

Kaixo famili! STOP. San Andrestarrak Ezozitarrei burlaka diharduela entzun dogu. STOP. Egixa esan, beti egon da San Andres Ezozki baino goratsuago. STOP. Galdetu abadiari bestela. STOP. San Andresko pelota txapelketia kalia ? .STOP. Ze antolaketa klase darabizue baina ?. STOP. Ikusliak zoraturta dabiz zuen bila. STOP. Tanborradan komandantzia aldaketia izan da. STOP. Soldauak falta dira oin. STOP. Tiruak izan dira baina gerrarik ez. STOP. Lengo lepotik burua. STOP. Kultur eta kirol taldiak aterpe on bat bihar dabe. STOP. "Oin darenetan ez da euririk sartzen maittia". STOP. "Ez diharduanian !". STOP. Pelotari bikainak daukaguz plaentxian. STOP. Eh Lasku ?. STOP. Oierri barkatixozue. STOP. Azkenaldi honetan depresiñuekin dabil psikoterapia, edo kontu horrekin. STOP. Ez da masajistia. STOP. Pfsiokoterapeutia da, ez ahaztu. STOP. Egon hadi lo eta jango dek me !. STOP. Agur famili !.STOP. Egin kaso PIL PILEANI .STOP. Ttak !.

Kolaborazioa



Fisioterapeuta ez da masajista

Oier Oreji

Badira 3 urte etetik hanka eginda Bartzelona aldera jua nintzala unibertsitatian Fisioterapiako diplomatura egiteko asmotan. Bai oraintxe amaitsu berri dot eta konturatu naiz gure gizartian gauzak nahikua nahastuta dabela. Badira 3 urte be, kalia masajista estudixuak egitten nabilela entzuten daroiazanak, baitta 2 urte be aldizkarixan "gure sorgin" modura irakurtzen ditzuen artikulua preparatzen be.

Aldizkari honen irakurle zarienok, konturatuko zinaten atal hortan gai desberdin asko landu izan ditzutela (gihar lesinuak, lepoko minak, amasketa arazuak, tronbosisa...), eta gai honek danak fisioterapiakin zerikusixa daukenak dira. Beraz ikusten dan moduan fisioterapiari arlo desberdin asko topau leikeguz, kirola egin osteko errekupezinua, gihar lesiñuen osatzia, amasketa arazuen tratamendua, giza nerbio sistemian lesiñuen tratamendua...

Garbi laga nahi neuke ni fisioterapeutia izatiaz gain masajistia be banaizela, eta alde haundixa dagola batetik bestera. Masajista izateko, kursilo batzuek egitten dira eta asko jota be 600 orduko ikasketak dira. Fisioterapeuta izateko berriz, 2000 orduko gorako ikasketak egin ditzut, bertan giza gorputza goititik bera ezagutu, gaixotasunen zehaztasunak ikasi eta baloratzen ikasi... eginaz.

Azken finian Fisioterapeutiak, masajia daukan herraminttetako bat besterik ez da eta masajistia daukan erraminta bakarra izan biharko litzake, naiz eta gure gizartian intrusismo haundixa egon eta masajista asko fisioterapeuten lanak egitten ibili. Fisioterapeuta batek, aurrian adibidez gihar lesinua daukan pertsona bat badauka, hor barruko esturturen egoera badaki zein dan lesinua egin zala segun da zenbat denpora pasau dan...

Honekin ez dot nahi masajisten kontra juaterik baina bai jentia konturau deila fisioterapeuta masajista bat baino askoz hobeto gertautu dagola (zeozergaittik da karrera uniberzitarixua ez?).



36.
alea

Argitaratzailea:
Pil Pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal,
Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Ane Larreategi, Aitor Madrid, Jon Oreji, Oier Oreji, Eduardo Pombar,
Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

E-maila: Pilpilean@euskalnet.net

Publizitatea: Jon Oreji

(943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean

ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Lege-gordailua: SS-537-2.000

C.I.F.-a: G20696563

Azala: Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ALDIZKARI HONEK ERAKUNDE HAUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU EUSKARA BULTZATZEKO.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Gutunak

Soroluzeak eta Aldasoroak

"Iraganik gabeko herriek ez ei dabe izaten etorkizunik"...enbor bereko etorkizunik behintzat ez, erantsi beharko genioke esaera horri. Gure herriaren izena bera ez dakigu ondotox nondik datorren ala zergatik duen halako izena. Eta ez badakigu ondo, eta ez bagara gauza gure iragan propioa aztertze eta ezagutze, etorriko da baten bat kanpo kanpotik eta... jan egingo gaitu. Jar daigun adibidea: " El pueblo de Placencia de las Armas se jumeló en su día con ciudades y pueblos hermanos que llevan su mismo nombre, Plasencia en Extremadura y Piacenza en Italia"...Ez dago ezer esaterik, bata eta besteak -izena kenduta- gure herriarekin ezer ikusirik ez izan arren. Oraintxe jatorri hala ere galdera. Eta zergatik ez dabe gauza bera egin Bizkaiko Plentziarekin ala Zuberoko Atarratze-Soroluzerekin ? Erantzuna oso sinplea da: Plentziarekin, uste dabelako ez dela izen berbera; Atarratze-Soroluzerekin existitu ere existitzen duela ez dakitelako. Horra hor beraz, nora eramaten gaituen iragana ez ezagutzeak eta euskaraz batzuek hain gutxi jakiteak, gure agintariak ei direnak hain zuzen. Iragan ez oso urrun batean, hirurogeita hamarrera arte gutxi gora behera, gure herria, Plaentxi-Soroluze, soroez inguraturik zegoen eta soro bakoitzean laboreak landatzen ziren: Artoa, garia, garagarra... eta horrela izan da ehundaka urtetan, larogeiko hamarkadan baserriaren krisiak horrekin guziorrekin bukatu arte. Gaur egun oraindik ere soro berezi horiek ikustarazi daitezke inguratzen gaituzten mendietako hegi eta maldetan, "mendi eskilerak", batzuetan ardientzako zelai bihurtuta, belar eta sasiez beteak, beste

batzuetan pinudiz josiak. Soro hriek.."esos huertos colgantes"...dira euskaraz, ALDASOROAK eta behekoa, edozein arma fabrika, ola zein tailerra ipini baino lehen, beheko soroa, handiena eta luzeena, Soroluzea, urteen poderioz eta hizkuntzaren legeagatik SORALUZE. Laister, honen guzionen oroitzapena eta berezitasun historiko aberatsa galduko da betirako, erremediorik ipintzen ez bajako. Aldasoroek ia gure egunetara arte iraun badabe ere, ez da gauza bera gertatu Soro luzearekin. Soroluzeak laster jarri zituen arma olak bere terrenoetan, XV. Mendean ere badago horretarako dokumenturik. Eta garai hartan hizkuntza ofizial eta kultuaz baliatu ziren arduraz eta dedikazioz berria zen herriari, izen berria ipintzeko: PLACENTIA. Hau da, aintzinako erromatar soladaduen deskantsalekuak gogoratu, ederrak eta atseginak izateko fama baitzuten. Eta geroago: LA DE LAS ARMAS. Baina herriak, euskalduna zenez, pixkanaka, Plasentzi, Plaentxi ala Plentxi bbihurtu zuen, italianoek Piacenza, frantsesek Plaisence, ingelesek Plency eta Bizkaiko muturreko beste euskaldun horiek Plentzia bilakatu zuten moduan. Baina hementxe bertan dirudienez, Soroluzeko euskaldunok, ezin dugu ezta gaur egun ere, gure herriaren izena, PLAENTXIO_SORALUZE euskaraz jarri erabat, eta nik ez dakit zergatik halako peaje absurdo ordaindu behar dotzagun erderari, historikoki ez baita inoiz hemengo hizkuntza izan, eta baldin eta arazoa DE LAS ARMAS bada, berau euskaraz PLAENTXI ARMETAKOA esan daitekeela edonork jakin dezake. Ea agintari gureak, lotzen saiatzen diren iragana eta geroa, sinbolikoki ez bada ere.

Takolo Pirritx eta Porrotx

Hile honetan Kultura Batzorde buruak batzarrera deitu zigun. Bilera hasi eta jaietako egitaraua osatzen hasi ginen. Haurren eguna nola beteko den aztertzen ari ginen. Halako batean EAJ-PNVko Batzorde buruak aurreko urtean egondako Takolo, Pirritx eta Porrotxi aurrean ez zaiela deituko azaldu zigun, hantxe geunden guztioi, pailazo hauek etortzea jende askori ez zaiola gustatuko argudiatuz. Euskal Herritarrok talde politikotik erantzun zitzaien, baztertzeko bere arazoia pailazo horietako bat EHko zinegotzia izatea zela.

Handik aste betera, EAJko Kultura Batzorde buruak berriro batzarrera deitu gintuen. Takolo, Pirritx eta Porrotx ez zirela baztertzeko adierazi zigun alkateak. Hala ere EAJ-PNVko Batzorde buruak zalantza handiekin jarraitzen du, berak hanka sartzerik ez duela egin esan eta badakiela jende askori ez zaiola gustatuko.

Soroluzeko Euskal Herritarrok taldetik hau guztia salatze modukoa iruditu zaigu eta bide batez gogoratu nahi diogu Kultura Batzorde buruari, aurreko urtean, 2000ko jaietan EH eta PNVko zinegotziek, besteak beste, HAURREN JOLASAK antolatzen genituela, bera atzerrian zen bitartean. 2000. urtean EHko zinegotzi batzuei haur jolasak antolatzeko laguntza eskatu eta 2001. urtean, ordea, Takolo, Pirritx eta Porrotx taldea baztertu nahian, euretako bat EHko zinegotzia delako, ez al da kontraesan bat?

Soroluzeko Euskal Herritarrok

Tomas Trifol

Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna 27. Posta Kutxatilara - 20590 Soroluze. Laburtu behar izanez gero, *Pil-Pileanek* horretarako eskubidea izango du.



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa **943 75 17 36 - 75 18 03**
50 Posta Kutxatila Faxa **943 75 22 95**
20590 Soraluze



Telefona 75 24 09

ARRANO TABERNIA

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

Auzuetako jaixetako erromerixen inguruan zer iritzi daukazu ?




Luis Ariznabarreta
32 urte
Extabernarixa

Ni erromerixetara juaten naiz, ondo dare eta jarraitu egin biharko litzake egitten. Oin Ezozikuak egon dira, gero San Andres, San Martzial, Irure... nahixago dittu erromerixak kalia formatzen dan girua baino, jentia alaixago egoten da holakueta. Nik uste dot auzuetako erromerixak ondo darella, ez dake gehixago bultzatu biharrik.



Iratxe Benito
30 urte
Langilia.

Ni askotan juaten naiz auzoko jaixetara, eta nahixago dittu honek, igual jai hasierak izaten diralako, eta pilak kargatzen juateko. Jentia animatuko balitz dantza egittera, eta giruan sartu, bultzatu egin biharko litzake. Ez dakit zegaittik jentia ez dan holakueta ibiltzen; musikiagaittik, nahixago dira tabernak...



Imanol Maiztegi
40 urte
Langilea

Bakoitzak bere giro motia dauka, ni noizian - behin juaten naiz auzoko jaixetara. Oso desberdinak dira kaleko girua eta erromerixak. Kaleko jentandako aproposaguak dira tabernak... bakoitzak bere preferentziak dauka, eta ondo iruditzen jataz bixak. Erromerixak gaztien esku dare, zaharrek badakixe zer daken holakueta eta gustora egoten dira, baina gaztiak igual ez dabe esperotakua topatzen. Ondo egongo litzake holako erromerixak bultzatzia.



Sinforiana Muñoz
58 urte
Etxekoandria

Neri asko gustatzen jataz erromerixak. Lehen, umiak txikixak ziranian juaten ginan, oin gutxiagotan. Holako gauza danak ondo dare, oin jarri dabezen zine librian moduan. Zeoze egin biharko litzake erromerixak egoten segitzeko, horrek herriko girua hobetzen dau eta. Baina hori bai, giro "formala" egotekotan...



Zigor Alberdi
19 urte
Ikaslia (??)

Normalian ez naiz juaten jaixetara, karrerak eukitzen dittutelako. Aukeratzekotan erromerixak aukeratuko nittuzke, bestelako talde edo tabernen aurrian. Bultzatzeko, gehixago egin biharko litzake, besterik barik.



Asten Yodego
59 urte
Etxekoandria.

Ni tabernetako giruak itto egitten nau eta espero dot ez dirala erromerixak galduko. Oingo gazterixia lehenguan aldian desberdina da, beti tabernetan dabil... erromerixak lehengo gauzak dira, oin dana saturauta dago. Girua hobetzeko joku kulturalak... egin biharko lirakez.

Ugaitz Catalan
Eguzkiñe Aldazabal




HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behe
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

"Cine Soraluce" botako dute

Uztailaren 2an, astelehena, frontoian aurkitzen den "Cine Soraluce" botatzeko lanak hasiko dira. Eraikin honen azpian elizako sakristia dago eta zinea bota arren, berreskuratzeko asmoa azaldu dute, nahiz eta lehendik zegoena baino 30m2 txikiagoa gelditu. Hori dela eta, astelehenean bertan ekingo diote sakristia husteko lanari.

Zinea botatzeaz gain, beste lan batzuk egiteko asmoa ere azaldu dute, hala nola, eskuineko terrazaren ordez teilatu bat ezartzea edo atzealdean daukan hezetasuna ezabatzeko eraberritze lanak egitea.



Apaizak adierazi duenez, lan hauek 6 hilabete inguru iraungo dute, gabonetarako bukatuta egongo direlarik.

Kanpotar mutil batek bere buruaz beste egin nahi izan zuen

Hilaren 9an, zapatuan, goizeko hirurak aldera, kanpoko mutil bat bere buruaz beste egiten ahalegindu zen Santa Ana kalean dagoen zubitik behera salto egingo zuela esanez. Honen eta bertan zegoen neskaren oihuek, auzolagunak esnarazteaz gain, ustekabean bertatik igaro ziren soraluzetar senar-emazte bat hurbil arazi zuten, eta hauek iadanik zubi gainera igota zegoen mutilak salto egitea galarazi zuten, berau lurrera botata. Ondoren mutilaren zenbait lagun iritsi ziren eta zorionez, hortan gelditu zen guztia.

Arrate Azkona Espainiako txapeldun 1,65 alturan eta 12,02 luzeeran

Arrate Azkona atleta plaentxiarrak alturako jauziko garaipena lortu du, asteburu honetan Huescan jokatu den Espainiako Txapelketan. 1,65

Jauzi hirukoitzean 12,02 metroko marka egin du eta 3. postua lortu du. Alturako jauzian, 1,65 metro pasatu ditu eta Espainiako Txapeldun gelditu da. Zorionak Arrate eta segi gogor.



Karakaten antena bat gutxiago



Duela gutxi, Karakaten gelditzen ziren antenetako bat desmontatu eta kendu egin dute, "Retevisión" delakoarena. Honek utzitako lekuan, udaletxeak behatoki bat jartzeko asmoa dauka.

Horrenbestez, lehenago ere beste bat erretiratu zuten, Eusko Jaurlaritzak duena besterik ez da gelditzen.



Kaleko zine emanaldixen arrakastia

Ostiral honetan botako dabe hirugarren eta azken filmia Plaza Zaharrian. Aurreko bi pelikuletan, plaza bete bete egon da eta eguraldi onari esker,

gozamen bat izan da kanpuan zinia ikusi ahal izatia hainbeste jenteren onduan. "Limite Vertical" pelikulako akatsekin, jentia bildurto baino barre

gehixago egin zeban, baina tira. Errepikatzeke moduko ekimena, garesti samarra baina.

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375

ELKOARTI

VIDEOCLUB SORALUZE

Videomatic

Gabolatz, 3-behea
Telefonoa: 943 75 24 87

Soraluzek badu bere lekua INTERNETEN



Udaleko web-orri berriztua

Soraluzek, interneten duela hilabete batzuetatik udaletxeko zenbait konturen gaineko web orria bazeukan ere, WWW.SORALUZE.NET, orain gutxi berriztua eta hobetua izan da. Gaur egun, bertara sartzen den edonork, hasiera batean alkateak idatzitako sarrera batekin topo egingo du eta ondoren sail ugariz osatutako aurkibide bat izango du eskura. Alde batetik, herriko gertaeren berri

izateko aukera izango du irakurleak, eta bestetik, gure herriaren gaineko historia (noiz-zela-zergatik sortu zen, zein garapen industrial izan zuen...), eskaintzen dituen zerbitzuak (gastronomikoak, industrialak...), ospakizun garrantzitsuenak (jaiak, ohiturak...) edo monumentu eta gure mendietan zehar egin daitezkeen ibilbide ederrez (irudietan ere bai azken hauek) gozatzeko modua ere bai.

Udaleku irekiak abian

Aurten ere herriko gaztetxoek egun alai batzuez goza ahal izango dute. Udaletxeak eta PIL-PILEAN kultur elkarteak, udaleku irekiak antolatu ditu 4-10 urte bitarteko-entako uztailearen 2tik 13ra. Honela, hainbat irteera, jolas eta kanturekin ez dute aspertzeko astirik izango, hori da behintzat bertako helburu nagusia, eta bien bitartean, zela ez, euskera bultzatzea.

Don Jose Maria hil da



Urte askoan Soraluzen apaiz izandako Don Jose Maria "Donjo" hil honetan bertan hil da Donostian. Goian bego.

Auto istripua "Unamuno" parean

Hilaren 16an, zapatua, gaueko 10:00ak aldera, auto istripu bat gertatu zen herritik Maltzagarako bidean dagoen "Unamuno" lantegiaren parean, antza mozkorturik zihoan gizon baten autoak beste bat jo ostean. Dirudenez, autoa metro batzuetan zehar behintzat, errepidearen alde batetik bestera zebilen kontrolik gabe, eta horren ondorioz jo zuen bi pertsona barnean zeramatzen beste autoa. Aipatutako gizonazko hori trabatuta gelditu zen ibilgailuaren barruan eta suhiltzaileek atera behar izan zuten.

Arianne Unamuno
Eguzkine Aldazabal
Enara Agirre eta
Maria Azkona

EUROA ikasgai



Euroa 2.002. urtarrilaren -etik abian jarriko da

Aurreko ostegun baten, jubilatuetan hitzaldi bat izan zen bertara hurbildu ziren edadetu ugariri euroaren gaineko kontuak azaldu asmoz. Azalpenen arduraduna ekonomia saileko Virginia Reina izan zen eta 2002ko urtarrilaren lehenengo egunetik abian jarriko den euroak nagusiengan sor ditzakeen arazoei aurre egin ahal izateko moduak erakutsi zizkien. Hitzez gain, gezurrezko txanponak

erabiliz joko baten bitartez egoera berrira nola moldatu ikasi ahal izan zuten. Era berean, jubilatuetako arduradunek udaletxearekin batera, iraila aldera, benetako praktika batzuk aurrera eramango dituzte moldaera errazte aldera. Hala ere, esan beharra dago, pertsona hauei garai batean xentimoak erabili izanak bidea erraztuko diela, gazteei berriz...

ETXEBARRI[®]
Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaizaileak
Ranurazaileak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefonoa(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

ESOZIA
Erretegi
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Hemen doakizue ikasturtiaren laburpena argazkittan:



Ikasleak eskolak jasotzen



AEK-k antolatutako 12. KORRIKA aurten be Soraluzetik pasatu zan



Ikasliak Endoian egondako Barnetegixan



AEK-k Gaztañerre egunian egindako afarixan

... eta datorren ikasturtian gehixago!!!

- * Mendi irteerak.
- * Irteera kulturalak.
- * Barnetegixak.
- * Tailerrak.
- * Guraso/umezainen arteko ekintza bateratuak.
- * Eta askoz gauza gehixago!!!



Ikasliak, AEK-k antolatutako infomatika tailerrian




EZ GALDU EUSKERAZ IKASTEKO
ETA ONDO PASATZEKO AUKERIA!!!

UDARAN ONDO IBILI ETA
EUSKARA ERABILI!!!

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Eloi Galan

“Nere ametsa musikatik bizi ahal izatia da”

12 Urtekin hasi zan baterixia jotzen eta ordutik ona, autodidakta moduan, belarriz ikasi dabenarekin bi taldetan jotzen dau gaur egun. EKON rock talde ezaguna eta FLY SHIT bergaran sortu berri dan talde berrixan jotzen dau Eloik. Azken talde honekin CD bat etara berri dabe Gaztelupeko Hotsak herriko disketxiarekin.

Zenbat urte daroiazuz baterixajole modura ?

- 11 edo 12 urte neukazela hasi nintzan lehenengo pausuk emoten. Ezoziko lokaletan, bertan jotzen zeban jentiarri baterixia jotzen lagatzeko eskatzen notsen.

“Karrera musikala” zela doia ?

Nik ez dot uste karrera musikala danik, baina oraindala lau edo bost urte hasi nintzan “serixuau” hartzen.

Lenengo FLY SHIT eta orain EKON bebai...

Ekonekuak aspaldi ezagutzen nittuan. Aurretik Arrasateko Brutal Melodykin jo neban eta Ekonekuak lokalkidiak ziran. Talde ezberdinak dira, biharbada Ekon talde serixuagua da.

Zela sortu da FLY SHIT ?

FLY SHIT oraindala bost urte sortu ginan. Gorabehera asko izan dittugu taldian baina gogua ipini dogu eta lan horren ondorixua etara dogun CDa da. Gaur egun oztopo asko dare diska bat etaratzeko, disketxiak saltzen daben musikari bakarrik begiratzen dotselako eta inork ez bazaittu nahi, zeuk ordaindu bihar dozu grabaketia.

Ze amets daukazu ?

Ez daukat amets zehatzik baina gustauko litzaidake musikari modura bizi izatia.

Laguneri gustatzen jakue ?

Lagunak beti egon dira nere onduan egitten dotenaz galdezka eta hori neretako laguntza haundixa izan da.

Talderik gustokuena ?

Talde asko gustatzen jataz, Gozategi eta Mikel Laboa euskal musikari.

Eta disgustokuena ?

Tamara eta Pub eta Boliako musika motak.



HABANERAN

Musikarendako gogo ta erritmo egarrixa, gustoz txikitatik lagun hartu zeban baterixa. Urriak badauzkan arren ez dauka pisu haundixa, baina badauka eskutan abildade berezixa. Mingaina bere tokixan eta burua argixa, lagun artian bihurtu haiz hi euskaldunbarrixa. Gabaren maitale sutsu kaletako gautxorixa, argi egitten hasi dan herriko izar barrixa.

Etxebarri

Eloi,Arranoko barratik etara eta Pil Pilerako argazkirako “posatzen” jarri genduan

Ze hutsune ikusten dozu herrixan musika alorrian ?

Udaletxiak ez dau ezer egitten musika taldiak bultzatzeko. Musikako lokalekin esperientzia txarrak bizi izan zittuzten baina hori ez da aitzakixa musika taldiri bizkarra emoteko. Bergaran Udaletxiak lokalak ipintzen dittu eta herriko jaixetan, herriko taldiri zuzenian joteko aukeria emoten dotse. Arrasaten lokalez gain, grabaketan bat egin bihar badozu, 100.000 pezetako dirulaguntzia emoten dabe. Talde batek aurrera urtetzeko bide errezagua dauka holako laguntzekin. Soraluzen be holako zerbaitegittia ez

legoke bape gaizki.

Errazago ligatzen da “izartxo” bat izanda ?

Horrek ez dauka zer ikusirik. Ni ez naiz hain ezaguna.

Plaentxiarreri zeozer ?

Jentia animau deila musika taldiri sortzera eta herri honetan musikarengaittik zeozer egittera. Musikaz gain be, gaztiak daren egoera pasibotik urtetzeko ez litzake gaizki etorriko Gaztetxiarengaittik zeozer egittia. Gaztetxia bultzatuta, herrixak eta danok asko irabaziko gendukelako. GORA PERNANDO eta VIVA LA REPUBLICA !

Gururu

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

**Gosarixak eta pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



**Iñaki
Iñarra**

**Harategi eta
Urdategia**

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

SAN ANDRES JAIXAK 2001

Tapia eta Leturia, Striptease eta MUNUA frontoiaren inaugurazioa

Uztailaren bigarren asteburuko 7, 8 eta 9 egunak alaitzeko, 1.300.000 pezeta baino gehiagoko aurrekontuarekin osatutako egitarau ikusgarria prestatu dute. Zapatu gaueko erromeria eta igandeko pelota partiduak izango dira 2.001eko San Andres Jaixetako ekitaldi nagusiak.

“Kaleko jentia eta baserrikua soziedadian batzen gara”



San Andres soziedadeko beterano batzuk. Beti umoretsu eta beti gazte. Zelako kuadrilia !

Jai mamitsu eta beroak

Urtero moduan, urteko sasoirik beroenari ongiatorria eginaz, jai eta alaitasunez betetzen da San Andres auzoa uztaileko bigarren asteburuan. Aurten ere halaxe egingo dute. 1.300.000 pezeta baino gehiagoko aurrekontuarekin eta 15 ekitaldi baino gehiagorekin beteko dituzte jaietako hiru egunak. 30 Lagun inguru jardungo dira borondatezko lanean eguraldi onaren itxaropenarekin. Aurtengoak ere Jai arrakastuak izatea espero dute guztiek.

ZAPATUA

Trikitixari Pomada

Sapatu gaua izango da dudarik gabe, aurtengo San Andresetako momenturik erakargarriena. Jaiei hasiera emango dien gauari, trikitixa usaineko bi taldek jarriko diote musika. Trikitixaren bide berri eta arrakastatsuen erakusgarri den kataluniako Pomada taldeak piztuko du zapatu gaueko kontzertuko sua. Trikitixatik abiatuta, baina inongo konplejurik gabe gaurko beste musika mota batzuekin nahastuz, reage estiloa gogorarazten duen erritmo biziko musikaz gozatuko ditu bertaraten

direnak. Jarraian, Tapia eta Leturiaren taldeak, fandango, arin arin eta euskal dantzez jositako erreperitorio gozo batekin eta jendea dantzan jartzeko teknika moderno eta praktikoarekin, lotsatienak ere mugituaraziko ditu.

Striptease-a badaezpada

Trikiti norgehiagoka gutxi ez, eta eguraldi hotza tokatuko balitz ere, badaezpada, berogailu berezi bat jarriko da martxan aurtengo jaietan. Lotsak alde batera lagata, musikari ezezirik, aurten Striptease-ari ere egingo zaio tokia San Andresen. Mutilak eta neskak osatutako bikote batek, lendabizi banaka eta gero biak batera, gorputzaren alderdi ezkutuenak erakutsiko dituzte bat egin barik. Ikutu gabe bada ere, gorputz ederrak ikusteko aukera izango da gauari argi eginda.

Estreinaldiko Bola Sarixa

Instituzio publikoen dirulaguntzaz eta auzotarren izerdiz egindako bolatoki berria ere, zapatu gabean estreinatuko da. Musika eta Striptease artean, 25.000 pezetako saria izango duen Bola Sariarekin jarriko da martxan bolatoki berria, ofizialki behintzat. Haritz egurrez egindako aterpe sendo eta zabal batek estaltzen duela, 12 metro baino

gehiagoko luzera dauka bolatokiak. Luxuzko jokalekua beraz, bola jokuaeren zaletu diren guztiendako.

DOMEKA

Munuaren inaugurazioa

Uztailaren 8an, domekan, eguerdiko 12:00etan egingo da San Andresko Munua pelotalekuaren inaugurazioa. Soralezko Udaleko eta Debemengo ordezkarien presentziarekin, inaugurazio ekitaldia goi goitik ospatzeko, profesional mailako partiduak daude iragarrita ordu horretarako. Udalak lagunduta, Aspe enpresako bi bikotek jokatuko duten partidua izango da ikusgai, Etxaniz-Imazek, Gonzalez-Zezeagaren aurka jokatuko dutena. Partiduaren ostean, herriko pelotarien arteko partidua izango da. Partidu bien aurretik Urrats dantza taldearen saioa izango da sarrera gisara eta tartean, urte askoan San Andresen izan diren Agirre eta Etxeberria bertsolariek jardungo dute bertsotan. Honekin batera, herriko trikitilaririk onentsuenetarikoak ere bertan izango dira. Ohitura duen moduan, Mendotz eta Bixkai trikitilari bikoteak, trikitixaz eta koplak beroz mugituko ditu bazterrak eguerdiko

txikitoarekin inork lorik hartu ez dezan.

Arratsaldean; harriak, abereak eta bola jokua

Domeka arratsaldea ere bete bete izango da. Arratsalde parteko ekitaldiak 18:00etan hasiko dira Perurena aita semeen eta Aimar Irigoien Errexilgo gazte indartsuaren erakustaldi saioarekin. Honen ostean eta gaztetzoen gozagarri, Gorritiren abereak askatuko dira plazan, umeak pony eta basurdekumeen artean ibili daitezten. Bolatokian ere ez da mugimendurik faltako eta iluntze partera jokatu da jaietako txapelketa. Azkenik, trikiti eta bertso artean, erromeri eder batekin emango zaio egunari amaiera.

Astlehena ume eta auzokoendako

Umeendako eta auzotarrendako prestatutako egitarauarekin, bestelakoa izango da asteleheneko giroa. 12:00etan Auzokoek ermitan izango dute zita eta handik bazkalordurako orduak iritsi artean, umeendako jolasei begira, Egaña eta Irazu bertsolari bikainen bertsoak entzunez eta txikito edo



Profesionalek inauguratuko dute frontoia eta jende asko batzea espero dute.

pintxoren batekin barruak goxatuz, pasatuko dute denbora. Ondoren auzokoendako bazkaria egingo dute ermitako aterpean eta Gardokiren dantzarako musikarekin eta bertsolarien ateraldiak entzunaz emango diete amaiera aurtengo San Andres jaiei.


Ruza txikia baina jai handiak

Antolatzaileekin izandako elkarrizketan, hainbat gogoeta jaso genituen San Andresen egoeraren eta honek jaietan duen eraginaren inguruan:

“Lehenago San Andresen jente asko bizi ginan. Azken urtietan basarriak behera egin dabe eta jente gazte asko kalera bajatu da. Gutxitze horri aurre egiteko, oso garrantzitsua izan da soziedadia. Kaleko jentia eta baserrikua soziedadian batzen dira eta horrek elkartasun giro bat sortzen dau auzuan. Jaixak be soziedadian antolatzen dira, jentia prest egoten da lanerako. Auzoko jentiarri jai on batzuk eskeintzeko gogua ekartzen dau hori. Soziedadian jente asko gare eta horrek asko lagutzen dau. Auzuan ez dago len beste gazte. Auzokuen seme alabak kalia bizi dira eta askoz gutxiago dira len baino. Baina etortzen dira eta gogor egitten dabe lan. Poza emoten dau hola ikustiak. Aurten apostu gogorra egin dogu jaixekin. Jentia badaki eta etorriko da. Eguraldi onak laguntzen badau izugarria izango da, izugarria. Animo eta etorri San Andresera !”

Egoitz Unamuno

“Apostu gogorra egin dogu, jentia badaki eta etorriko da”



“Eguraldi onak laguntzen badau izugarria izango da, izugarria!!!”

Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Soraluze “INTERPUEBLOS”eko finalaren atarian

Soraluze iazko moduan, Herri Arteko txapelketako finalaren atarian dago. Final laurdenetan Zestoako pilotarien aurka erraz lortu zuten finalerdietarako txartela, joaneko partiduetan 3-0 ko emaitza lortu zuten eta gero Zestoan 2-1 irabazi zuten, orokorrean 5-1 eko emaitza eskuratu zuten.

Final aurrekoetan Hernaniren aurka tokatu da aurten ere. Oraindik gogoan dugu ihaz gertaturikoa, Soraluzen 2-1 eko eta 17 tantutako errenta polita lortu arren, nola Hernanin polikiroldegiko pilotalekua libre eduki arren plaza zahar batetako pilotaleku lotsagarri batean sartu gintuzten errentari eutsi ezinik 0-3 galdu genuelarik.

Aurten ere Soraluzen emaitza itxaropentsuak lortu ditugu joaneko partiduetan; Kadeteetan Erlei eta Zuhaitzek 22 eta 2-ko emaitza lortu zuten Erleiren erakustaldi berri batekin. Gazte mailan emaitza txarra izan ez arren ezin izan zen garaipena lortu 22 eta 20 galdu bait zuten Jauregi eta Alberdik.



Nagusietan Hernaniko bikoteak oso garezti saldu zuen garaipena. 22 eta 17 emaitzaz Muguruza eta Laskurain-ek Soraluzentzat bigarren puntua lortu zuten partidu gogor baten ostean.

Lortutako errenta 2eta 1-ekoa eta 23 tantutakoa izan arren, gogotsu eta burua hotz dutela joan beharko dute Hernanira gure pilotariak, ezin bait da bigarren aldiz modu berean galdu.

BESTE EMAITZA BATZUK:

Iñaki Jauregi Txapelkun Urrretxuko Txapelketan, 22 eta 5 irabazita.

Iñaki eta Erlei azpitxapelkun Zaramagako Txapelketan.

Onar Muguruza eta Gisasola Añorgako Txapelketan finalerdietara.

Erlei Txurruka, Elgetako lau t'erdiko Txapelketan final laurdenetan kanporatua.

16 Bikote I. SAN ANDRES Pelota Txapelketan

16 Bikotek eman dute izena aurten lehenengo aldiz jokatu den afizionatuendako I. San Andres Pelota Txapelketan. San Andres Txapelketa izan arren, San Andresko frontoian obrak egin behar zirela eta, partiduak ikastolako frontoian jokatzeara erabaki zuten. Nahiz eta gerora San Andresko frontoia jokatzeko moduan dagoela ikusi, ez da posible izan jokalekua aldatzea eta partiduak ikastolako frontoian jokatzen dihardute. Aurten salbuespen modura bada ere, San Andresetan beharrean (ez bait da posible) finala Santa Ana jaietan jokatu da ikastolako frontoian (txupinazo egunean) eta ondoren afaltzera joango dira partehartzailerak, jaiari hasiera on bat emateko.

Txapelketa ekainaren 16an hasi zen eta 4 multzotan banatutako ligaxka modura dago antolatuta. Multzo bakoitzean 4



Txipi, urrezko ezkerria daukan pelotaria sakia ateratzeko bidean

bikote daude eta denak denek kontra jokatu ostean, multzo bakoitzetik lehenengo gelditzen den bikotea pasatuko da finalerdietara. Oraingoz bi partidu jokatu ditu bikote bakoitzak eta hauek dira emaitzak:

EMAITZAK

1. MULTZOAN

Aitor F.-Topet 20/ Iraultz-Asier H. 22
Peñin-Niko M. 22/ Ernesto-Txuster 17

2. MULTZOAN

Roberto R.-Hektor 3/ Jesus A.-Luis (Edurtza) 22
Suar-Egoitz P. 22/ Txakarra-Andoni U. 0
(Txakarra lotan geratu zen)

3. MULTZOAN

Edu- Ugaitz 22 / Retegi II – Loiola 12
Unai L. – Limoi 22 / Jose G. – Blas 10

Retegi II-Loiola 9 / Unai L. – Limoi 22

4. MULTZOAN

Sabino- Bixkai 22 / Txipi-Zuhaitz 12
Juana Mari- Angelua 8 /
Jabi Azkona- Mikel Alberdi 22

Lakuesta
Optika 

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

Mendizaletasuna

Ekitaldiz eta irteeraz betetako Ekaina

Soraluzeko Mendi Taldeak antolatuta, ekainaren bigarren astean hainbat ekitaldi izan genituen ikusgai gure herrian; Diapositiba emanaldiak, hainbat espediziori buruzko hitzaldiak eta asteari amaiera ona emateko trikitilariz alaitutako bazkaria Ezozin.

Jende gehien hurbilarazi zuen ekitaldia, domekan ospatutako Finalista eguna izan zen. Lehenik goizean goiz Atxolinera igo ziren eta gero finalistei sariak emateko eta eguna ondo ospatzeko bazkaria egin zuten Ezozin.

Bazkariko gehiegikeriak gordetzeko asmoz, astebete geroago, Nafarroako pirinioetara astebukaerako irtenaldia egin dute soraluzeko mendizaleek. Astebukaera guztian zehar eguraldia ona izan zute eta pentsatuta zituzten bi mendietara igotzea posible izan zuten; Lakora eta Petretxena.

Sapatuan Belagutik Lakora (1877) mendira igo ziren eta beraien esanetan,



izugarritzko ikuspegia izan zuten gora iritsi zirenek; Txamantxoia, Hiru Errege Mahaia eta domekan igoko zuten Lapakiza-Petretxena mendia bistan zirela.

Gaua Zurizan pasa ostean, domekan Petretxena (2360) mendira igo ziren,

bertatik ere paraje ikusgarriak ikusi zituzten; Ansabere, Auñamendi, Ezkaurre... Igoera gogorra izan zen eta batek baino gehiagok sufrimendu ederrak pasa zituen. Soraluzera arratsaldean iritsi ziren neka-neka eginda baina burua lepo gainean zutela.

Futbola

Sari banaketa, denboraldi amaierako afaria

Urteroko moduan aurten ere Soraluze futbol taldeak denboraldi amaierako afaria ospatu du bere talde guztiekin; kadete, jubenil eta regionalekin. Afaria Txurrukan izan zen eta tripa ondo bete eta gero denboraldiko golegile onenei eta jokalarri erregularrenei sariak eman zizkieten.

KADETE MAILAN

Golegile onena: Marko Rascón

Erregularrena: Eki Elduaien

JUBENIL MAILAN

Golegile onena: Kaiet Castro

Erregularrena: Iker Uzin

REGIONAL MAILAN

Golegile onena

eta erregularrena: Oskar Miguel.




Oskar, Iker, Marko, Eki, Jon eta Kaiet harro harro, jasotako sariekin. Gainontzekoak ere ez ziren oso triste ibiliko.

Xuban Catalan
Egoitz Unamuno

Lonbide taberna

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Mendizabal

Okindegia

Kalebarren, 10

Telefona 943 75 20 91

Balategieta, 6

Telefona 943 75 13 99

SORALUZE

Santa Ana jaixetan Amparanoia talde ezagunak joko dau

2.001.eko Santiago Santa Ana jaixetarako hilabete baino gutxiago falta dan honetan, egitarau gehixenak ixa osatuta dare. Aurten, asteartian hasi eta larunbatian amaittuko dira jaixak. 5 egun eta 4 gaba horretan zihar, kontzertu, herri lehiaketa eta herri bazkarixak izango dira nagusi. 3 Programa izango dira; Udalak Jai Batzordearen bitartez osatu duena, Gaztetxearena eta Amnistiako Batzordeena (oraindik zehaztu gabe dagoena).

Udalaren programa-zinu; Anparanoia, Bide Ertzean eta Etzakit talde ezagunen kontzertuak eta Udalarekin elkarlanean PIL PILEAN-ek antolatutako balsa jaitsiera, asto karrera, balkoittik balkoirako bertso saia, mus tute



Txupinazuak jente asko batzen dau.

eta truk txapelketa eta sagardo eguna dira berrikuntza aipagarrirenak. Betiko moduan, zezenak be izango dira eta bakailau lehiaketa bebai Plaza Zaharrian.

Gaztetxiak bere alde- tik egitarau alternatibo bat prestatu dau aurten be. Herriko talde kultural batzuekin batera (PIL PILEAN, Euskal Herri- rian Euskaraz, Haika...)

barra zabalik izateko turnuak beteko dira. 3 Kontzertu prestatu dira jaixetarako; Tekno gaua eta beste 2. Honetaz gainera, txalapartarixak, txontxongiluak, kale antzerkixa, bertsolarixak eta malabaristak be izango dira ikusleen gozamenerako. Eta herri bazkari bat be bai, gaztiak elkarrekin batzeko.

Rogelio Botanz izan zan Plaentxian

Rogelio Botanz bakarlari kanariarrak kontzertua eskeini zeban Gaztelupian ekainaren 15ian. Eguna, laster etarako daben disko barrixa grabatzen pasatu eta gero, indarrez ahul baina espirituz indartsu etorri zen Rogelio eta betiko moduan bertaratu ziran danak harritsu zittuan, bere hitz eta musikarekin. Diskoa grabatzen kantulagun izan dittuan, Tapia, Urdangarin eta Arkaitz bibolinjole gazte batekin batera abestu zeban "Nere poesia" kantua be.



Irati Trebiño garaile ipuin lehiaketan



Ostegun honetan banatu dira, 2.001. urteko Ipuin Lehiaketari zegozkixozen sarixak. Aurreko urtietan baino partehartze txikiagoa izan da aurten eta nagusien mailan esaterako, 2 pertsonen besterik ez dute parte hartu. Epaile izan diranen aldetik, gaztexuen ipuinen kalitateak asko egin dabela behera azpimarratu dabe, bai hizkuntza gaitasun aldetik eta baita narratibitate aldetik ere.

1. TALDIA: LEHEN HEZKUNTZA 3. ETA 4. KURTSUAK

- 1.- Ohiane Alberdi "Liemiren egunkaria"
- 2.- Marta Ayora "Potx ipotxa eta Aitor"
- 3.- Ane Osoro "Martin Ausarta"

2. TALDIA: LEHEN HEZKUNTZA 5. ETA 6. KURTSUAK. B EREDUA.

- 1.- Alberto Maqueda "Gaztelu misteriotsua"
- 2.- Daniel Santos "Anubis"
- 3.- Basamortuko piramide magikoa"

2. TALDIA: LEHEN HEZKUNTZA 5. ETA 6. KURTSUAK. D EREDUA.

- 1.- Oskar Gutierrez "Zori Txarreko Familia"
- 2.- Ione Plata "Liburu Miresgarria"
- 3.- Garazi Arizaga "Bi mundu zeharo ezberdin"

3. TALDIA: D.B.H.KO 1. ETA 2. KURTSUAK.

- 1.- Hutsik
- 2.- Ander De Luis "Rantxo baten bila"
- 3.- Hutsik

4. TALDIA: D.B.H.KO 3. ETA 4. KURTSUAK.

- 1.- Ainara Astigarraga "Artzain txabolako artzaina"
- 2.- Ainhoa Astigarraga "Hiltzailearen bila"
- 3.- Hutsik

5. TALDIA: 18 URTETIK GORAKUAK

- 1.- Irati Trebiño "Kolareak"
- 2.- Hutsik
- 3.- Aiora Elizburu "Asteburu azkar bat"



Ventanas
Olarri

* Aroztegia, PVCa, Aluminioa
* Terraza estaldurak, Balkoiak
* Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila





PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

“LENGO LEPOTIK BURUA” taldiak antolatuko dau nagusixen tanborradia



Tanborradko partaidiak juan zan urteko ensaio baten.

raindala 5 urte **O** tanborradia antolatzen hasi zan lagun taldiak laga egin dotsa aurten tanborradia antolatzari. Erabakixa, azken urte honetan pertsona batzuekin izandako arazuk zirala eta, hartu dabe. Adierazi doskuenez, “penaz” lagako dotse ezerezetik berpiztu eta 5 urtetan zihar antolatzaren jardun daberen tanborradiari baina ez dabe beste irtenbiderik ikusi, “gauza gehixegi pasau dia”.

Talde honek antolatzari laga dotsala eta, beste talde bat sortu da tanborradia antolatzeko gogoz. “Lengo lepotik burua” izen adierazgarrixarekin eta

aurreko taldiaren laguntza eta oneritzi osuarekin, aurtengo nagusixen tanborradia antolatuko dau gazte osatutako talde honek.

Aurreko urtietan moduan, 3 sailetan banatu dabe tanborradia; soldaduak, sukaldarixak eta gremixuak. Hiru sail honetakoren baten izena emon eta tanborradan parte hartu nahi dozuen Soralezar danok, Iratxo (Agirre) Goxodendan eta Gila tabernan izango ditzuzue izena emoteko orrixak. Ensaiuak uztailian izango dira eta betiko moduan goiko eskoletako jolastokixan egingo dira.

Txikixen tanborradiari dagokixonez, Uda-

leko Kultura Sailak hartu dau berau antolatzeko arduria eta udan gaztetxoekin ibiltzeko kontratatutako begiraliak izango dira ensaio eta prestakizunak egingo ditzuztenak.

Animo eta emon izena tanborradarako !


ENTSAIO EGUNAK:

Nagusixen tanborradarako ENTSAIUAK UZTAILAREN 6, 13 ETA 20XAN (OSTIRALETAN) EGINGO DIRA. Arratsaldeko 19:00etan goiko eskoletan.

Txikixen Tanborradarako entsaiuak, UZTAILEKO ASTEARTE ETA OSTEAGUNETAN (5, 10, 12, 17, 19), arratsaldeko 18:00etan goiko eskoletan.

Eta literaturaz?

Hil honetan zozketan?



Printze txikia

Egilea:
Antoine de Saint-Exupéry
Itzultzailea:
Patxi Zubizarreta
Orriak:
96
Data:
2.001eko ekaina

Egileaz bi hitz

Antoine de Saint-Exupéry XX. mendearekin bateratsu jaio zen (1900-VI-29), Lyon-en, antzinako familia aristokratiko baten altzoan. Laster aitarik gabe geratu bazen ere, oso haurtzaro zorionsua izan zuen izebaren gazteluan, Saint-Maurice de Rémons-en. Handik gertu bazen aerodromo bat, eta badirudi hantxe piztu zitzaiola hegazkinekiko grina. Artean gazteegi, izarek bi hegal handi egin, eta bizikletari erantsi zizkion.

Printze Txikia

Bere bibliografia mamitsuan bada besteak ez bezalako liburu bat, Frantzia Alemaniaren mende zegoen garaian, EEBBetan, Long Island-en idatzia: *Printze Txikia* (1943).

Abenturak alde batera utzita, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatuta eta poetikoa eskaintzen digu.

Eta galdera da?

Nongoa da Patxi Zubizarreta

itzultzailea ?

(Baserritarren peria famatua egiten da astero astero herri horretan)

Baldin badakizu deitu **943 75 13 04** telefonora.

Animo!

PRINTZE TXIKIA elaberriaren bi ale dauzkazu zure zai!

Aurreko aleko irabazleak:
Rosa Zabala eta Ander Epelde

PIL PILEAN ETA ELKARLANEAN
BAT EGINDA,
EUSKAL LITERATURAREN ALDE

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



Erreal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Hileko argazki albuma

Ezoziko Jaixak eta San Juan Gaba



1



2



3



4



5



6

1. Mutil gaztiak eta bi andra eder, trukekofinalian. Andrak txapeldun !! 2. Ezoziko jaixetan afari ederra dastatzeko aukera paregabiazan, bestela galdetu Bigira trikiti taldeko partaidieri. 3. Arrixatarrak, senitarte ugarixa dira baserri horretan. 4. Oindio be trikitixiak badauka arrakastia gaztien artian. Fandango eta arin arin batzuk dantzatu ziran Ezozin 5. Plaza Barriko Sorgin gaba edarki juan zan. Eskuminak Joanesi. 6. Estaziñora jente asko batu zan eta tartian omenaldi bat be egin zeben.

Vidal frutadenda

Zure
frutadenda



Etxaburueta 2
Tfnoa 943 75 20 55
20590 Soraluze

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak


Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69




UDAL BATZORDEEN BERRI

Maitzaren 17an egindako ez ohiko saioan

Erabaki hauek hartu ziren:



1. DBHko ikastexe ondoko pilotaleku zaharra estaltzeko proiektuaren lanak adjudikatzea “ **Construcciones Ugarte, SL** ”ri behin betiko, 30.100.000 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.



2. Arane udal kiroldegian zaharbertitze proiektuaren lehen faseko lanak adjudikatzea “ **Construcciones Murias S.A** ”ri behin betiko 49.125.840 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.

Maiatzaren 28an egindako ohiko saioan

Aho batez erabaki hauek hartu ziren:

1. Bake Epaitagirako fotokopiagailua erosteko, “ **Sumofic** ” en aurrekontua onartzea, 259.840 pezetako zenbatekoz. BEZ barne.
2. Kirol Batzorde Informatzailearen proposamenez, 427.000 pezetako dirulaguntza ematea **Soraluze Kirol Elkarteko Mendi Taldeari** 2001.urterako, zenbateko horren %60 a (256.200 pta) orain ordainduz eta gainerako %40 a bidezko txostena eta balantzea aurkeztu eta gero.



Ekainaren 4an egindako ohiko saioan

1. Roberto Gabilondo Urria Jn.k “**Vicente Gabilondo e Hijos, S.A.**” enpresaren izenean eta ordezkari gisa, udalerriri honetako “**I.I.-Gabilondo**” Alderdian, gaur egungo pabilioien hegoaldean eta hauei atxikita, industria-nabe bat eraikitzeko, 1994ko azaroaren 7an eman zitzaion hirigintza

Hauek dira hartu ziren erabaki batzuk:

1. baimenari espreski uko eginaz.
2. **Peoi-lurperatzaile** zereginak betetzeko, Carlos Bautista Pires eta Angel Pellitero Alvarez Jn.k kontratatzea hiru hilabeteko epeaz eta egun osoko lanaldiaz.

Ekainaren an egindako ohiko saioan

1. Obretako langileendako arropak erosteko, “**Maza**” etxearen aurrekontua onartzea, 28.890 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ.
2. Zerbitzuetako langileendako eta Alkatearendako irratitefonoak erosteko, “**Ekintza**”ren aurrekontua onartzea, 201.420 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ.
3. Hezkuntza Batzorde Informatzailearen proposamenez: 150.000pezetako ordaintzea “**Plaentxi Herri Ikastetxea**”ri, 2.001.urterako dirulaguntza moduan. “**Soraluze B.H.I.**” Ikastetxeari 61.250 pezetako eta 125.000 pezetako ordaintzea, honek Eskola Kiroleko zerbitzuak ordain ditzan.
4. Santa Ana kaleko sarbidea hobetzeko proiektua idazteagatik,

Hauek dira hartu ziren erabakietako batzuk:


1. “**Sestra, Ingenieria Y Arquitectura**” enpresaren aurrekontua onartzea, 1.948.800 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.
2. Olaldetik Errekalderra, Deba ibaiaren gaineko zubia idazteko aurkeztutako eskaintzak ikusita, “**Sestra, Ingenieria y Arquitectura**” enpresaren aurrekontua onartzea, 4.930.000 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.
3. Kultura eta Gazteria Batzorde Informatzailearen proposamenez, jaietako kartel lehiaketaren saritarako, 75.000 pezetako aurrekontua onartzea.

Edu Pombar



Mainer Lopez
Podologo
65. kolejiatu zenbakia
Arragueta kalea,
2 bis C behea
20600 EIBAR
Tlfnoa: 943 82 04 88

Bolia taberna



Soraluze

Etxaburueta kalia Telefonoa:
943 74 11 04

Ariketa fisikua eta hidratazinua

Uda heldu da eta honekin batera berua bebai. Gainera sasoi honetan gazte askok kirol pixkat egitteko aprobetxatzen dabe. Bero honekin erreza da gorputza hidratazino barik gelditzia eta hau ez pasatzeko, ganoraz ura eran eta jatia, oso garrantzitsua da.

Garrantzitsua da gure gorputza ondo hidratauta eukitzia, eta hola gorputzak kondizino onetan lana egingo da. Hau ezinbestekua da baina sarri ahaztu egitten jaku. Horregaittik jakin bihar dogu noiz eta zelan hidratau bihar garan.

Ariketa gogor bat egitten hasi aurretik, bizikletan ibiltzera urten aurretik adibidez, profesionalak egitten dabena jarraitzia ez litzake bape txarra izango. Honek, urten baino 3 ordu aurretik jaten dabe eta 45 minutu lehenago beste pixkat jaten dabe. Importantia da ura eruatia aldian, ura edo gatzekin etab. ekin daren preparauak eruatia.



“Oso importantia da ariketa fisikua egin ostia behe eraten eta en jaten jarraitzia”

Hau, hogeit edo hogetamar bat minutuan behin trago txikixak egitten eran bihar da eta ez dana golpian, bestela tripia bete eta gero, ez da ez jateko eta ez erateko gogorik eukitzen. Eranakin batera, importantia da pixkat jatia, gorputza jana asimilatzen juan dein eta gu energiarik

barik ez gelditu ez gaittezen.

Beste gauza importante bat, ariketa hori amaitzian eraten eta jaten jarraitzia da. Hona izaten da azukardun ura eratia, orduan behin edo eta gauza gozuak jatia, ogixa ezti pixkatekin, mermeladia, pasteliluak... gero ariketia atzaldian egin badogu, hona da afaltzeko pasta edo arroza tartian daukan menu bat jatia.

Bueno ba, hau izango litzake ariketa fuertetxo bat egin nahi dabena jarraitu biharko leukian hidratazino lana problemarik ez eujitzia nahi badau. Garbi gelditu deila, hau hola eginda be, nekia berdin berdina izango dala, hori ez dago kentzerik, baina bai “pajara” dalakua.

Oier Oregi



“Ura poliki poliki eta trago txikixak emonaz eran bihar da”

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96


Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Erretratu zaharra



197x ko
SAN ANDRES Jaixak



Badira urte batzuk argazki honek etara zirala. Ezkerreko argazkixan, garai hartako plaentxiako dantza taldia ikusten da txangarrankua dantza egitten. Ikurriña haundi bi, garaiko abertzaletasun sentimendu indartsuaren adierazle dira. Soziedadean konpontze lanak egiteke zeuden oraindik.

Eskumako argazkixan berriz, Aritzako Etxetxoko Lazaro zenari egindako omenaldixan. Egun hartan auzokuen arteko harri jasotze eta aizkora jokuak eginzittuzten. Hemen be ikurriña bista bistan, garai haren adierazle bihurtuta.

San Andresko soziedadiak lagata.
Egoitz Unamuno

EUSKALDUNON 01 GIDA KOMERTZIALA

Profesionalen eta merkataritza alorreko helbide eta telefonoz osatua

DOAN EGUNKARIArekin EKAINAREN 30ean

KOLOREETAN ZURI EGOKITUA

- Erabilgarriagoa
- Eraldatua

aurkibidea **SEKTOREKA**

aurkibide **OROKORRA**

aurkibide **ALFABETIKOA**

ARTIKULUAK

gida **WEBGUNEAK**

Egunkaria

Ibilixan ibilixan bertso eskolia

Heldu da uda oporrak eta ura



Hiru modelo Argateko potzuan. Bi sorgin eta mejikano bat.

Eskolarteko Txapelketia pasatu ostian, oporren atarixan geldittu gara konturatu aurretik. Neska mutikuak, lenengo arratsaldetik eta gero egun osuan ikastolatik jai hartu dabenetik, nahikua lan izan da ikasliak ordurako batzen

eta gero eskolak bihar dan moduan emoten gutxiago ez. Laster dira San Andresak eta herriko jaixak heldu bittartian, hori izango da saio bakarra. Ezozin be egin zeben saiotxo bat nagusixenak. Hona kantatutako hiru ale:

DOINUA: EDURRA TEILATUAN...

*Sei bertsolari dauzkat
nere inguruan,
errima sorta onak
dauzkenak buruan,
Riaaaau
riau ,riau, riau
rakataplau
ez dogu merezi,
plaza onegixa da
gureztat Ezoz.*

*Ezozin pasatzen da
gauz izugarria,
kantatzen hasi eta
hau da egarria,*

*Esker mila Ezoziko jaixen antolatzaile-eri, bertso eskoliari lekutxo bat egin eta bazkari bana emotiarren. Eskerrikasko

*Riaaaau
riau ,riau, riau
rakataplau,
nun da iturrixa,
noiz egin bihar dabe
beste bat berrixa.*

*Riau, riau,riau, riau, riau, riau, riau
riau, riau, riau, riau, riau, riau
doinua ondo jakin
ta ezin dominau.
Riaaaau
riau, riau, riau,
rakataplau,
bertso onak edo,
gehixao izango dira
bazkaldu ta gero.*

bihotz bihotzez, bertso eskolako danon partetik.

Egoitz Unamuno

Horoskopua

Ygarten Ygartendotela



ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era
Lapiko artean gustura lagatzen dituzu, mahaikideak. Hala ere, etxeko lanak ere hor daude eta azken honetaz zerbait ikasiko bazenu hobe.
Pil-eguna: 14



TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era
Beti oker pentsatzea ez da bat ere mesedegarria. Ez al dakizu gauza guztiak bere alde ona dutela?
Pil-eguna: 13



GEMINIS maiatzaren 22tik ekainaren 21era
Atsedena hartzea ez latorke gaizki motel. Lan ta lan zabilzten azken bolara honetan osasuna pizkat zaindu beharko zenuke.
Pil-eguna: 20




CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra
Alai eta umoretsu zabilta eta ez da txarra ez horixe! Baina konturatu al zara zer esan nahi duen bart amestutako ametsak? Jakingo bazenu aldarre berean egongo al zinake?
Pil-eguna: 12



LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra
Larri ibili zara azken bolada honetan. Dena ondo eta bere tokian ipini eta zaintzen. Orain burua bere tokian jarri eta zure burua hasi zaitez zaintzen.
Pil-eguna: 22



VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra
Kontutan ez hartu zure lana baloratzen ez duten horiei. Beti egongo dira egiten duzuna harreta berezia ipiniko dutenak.
Pil-eguna: 16



LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra
Ikustekua dira zure "obrak" motel, erakusketaren batean ipiniko bazenitu artista mundiala ezagutuko luke herriak.
Pil-eguna: 17




ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra
Buruko mina duzula kexatzen zara. Ez da oso harritzekoa, azken boladan darabilzun martxarekin. Parranda egitea ondo dago baina dena bezela neurrian...
Pil-eguna: 29



SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era
Kalea leku bizi bizia eta mobimenduz bete delo begi bistakoa da. Oso entretenigarria. Orduan emetatu telebista eta irten kalera.
Pil-eguna: 25



CAPRICORNIUS abenduaren 22tik urtar. 20ra
Burugogorra bazara ba ezta? Beti zeuk nahi duzun bezela ateratzea nahi dituzu gauzak, ez al dakizu dena ezin dela zuk nahi bezela atera?
Pil-eguna: 11



AQUARIUS urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra
Osasun etxera laguntza eske joatea oso ondo dago. Baina bertan ematen diren aholkuak jarraitzen ez badira alperriko izaten da.
Pil-eguna: 22



PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra
Hil honetan ikastetxetik ia agertu ez zara egin. Kontuak ateratzen badituzu egia dela ikusiko duzu. Baina ez joateko arrazoia benetan zein den konturatu al zara?
Pil-eguna: 18

Uztaileko agenda

SAN ANDRES JAIXAK 2.001

Uztailaren 7xan, zapatuan

14:30ETAN

Kanpai eta Suzirixak.

19:30ETAN

Bolatokiaren probaketa eta ondoren afaria Hostrokua.

23:00ETAN



TAPIA ETA LETURIA, ETA **POMADA** taldeen kontzertua.

24:00ETAN

Estreinaldiko 25.000 pezetatoko bola saria. Tarteant, **STRIPTEASE** bikotearen saioak.

Uztailaren 8xan, domekia

11:00ETAN

Meza Sorraluzeko Koruaren laguntzarekin.

12:00ETAN



MUNUA pelotaleku berriaren bedein-kapena.

URRATS DANTZA TALDEAREN saioa.

Estreinaldiko pelota partiduak:

ETXANIZ-IMAZ /

GONZALEZ-ZEZEAGA

Jose **AGIRRE** eta

Patxi **ETXEBERRIAREN** bertso saioa.

HERRIKO PELOTARIEN partiduak.

Unai eta Enaitz Trikitilariak.

14:00ETAN

Bazkaria

18:00ETAN:



Harri jasotze erakustaldia:

IÑAKI PERURENA AITA

INAXIO PERURENA SEMEA

AIMAR IRIGOIEN ERREZILGO GAZTE

INDARTSUA

GORRITIREN ABEREA

AGIRRE eta **ETXEBERRIA** bertsolarien saioa.

Bola Saria:

1- 20.000 PEZTA.

2- 10.000 PEZTA.

3- 5.000 PEZTA.

4- SORPRESA

ERROMERIA Mendotz eta Bixkairekin

Uztailaren 9xan, astelehena

12:00ETAN

MEZA

12:30ETAN

UMIENDAKO JOLASAK

13:00IAN

Andoni EGAÑA eta **Jesus Mari IRAZU.**

JOSE GARDOKI alabekin

14:30ETAN

AUZOTARREN **BAZKARIA** soinu eta

bertsoz alituta

ERROMERIA

goxoa **GARDOKITARREKIN**

Ekainaren 30 eta
uztailaren 1ean

KARAKATEN EOLIKOAK
JARTZEAREN AURKAKO
AKANPADIA

KANPADIA KARAKATEN


Ekainaren 24tik aurrera

EPA-KO ESKULANEN
ERAKUSKETA

EPA-KO IKASLEEK EGINDAKO ESKULANAK daude ikusgai, Baltegietakoko Lokaletan. Arratsaldeko 16:00etatik iluntzeko 20:00etara.

Ekainaren 19tik
ekainaren 30a arte

KONTRARGI 2.001 ARGAZKIAK



HERRIKO ZAZPI ARGAZKILARIK egindako argazki bilduma ikusgai. Polixan.

Uztailaren 6, 13 eta 20

TANBORRADA KO ENSAIOAK

NAGUSIEN	TXIKIEN
TANBORRADA KOAK	TANBORRADA KOAK
Arratsaldeko	<u>UZT. 5, 10, 12, 17, 19</u>
7retan	Arratsaldeko
Goiko Eskoletan	6retan
	Goiko Eskoletan

Lehiaketia



Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

DEITU BIZKOR BIZKOR

943 75 13 04

afurreko aleko irabazlia: Ariane Arizaga
Erantzuna: Argate

ZORIONAK!!!



Iosu Gil
2.001 - 6 - 5
Zorionak mutikote !!

Zelako haundi egiten ari zaran eta bihurri bebai !! Gero eta gehiago maitte zatzugu !! Besarkada bat familixakuen partez.



Ane Mendia Elgeta
2.001 - 7 - 8
Zorionak mendizate!!!

Bartzelonan ez dago mendirik,baina hemen daukazuz Atxolin eta Karakate zure zain. Milimetro biko patxo bat familixian partez!

Maialen Bila
5 urte 2.001 - 8 - 17
Zorionak eta urte askotarako!!!

Baina zelako haundixa egin jakun gure Maialen, ixa konturatu barik...!!! Etxekuen eta lagunen partez.

Oihana laskurain
19 urte 2.001

Zorionak eta urte askotarako!!!
Laga filantropia edo pilosogia ikastiari eta aide San andresko sukaldara !! Aupa sukaldari! Zure lagun eta ezagun batzuk.



Moises eta Ion Gallastegi Goenaga

1.961 - 6 - 11 eta 1.962 - 7 - 17
Zorionak eta musu haundi haundi bat bixoi

Aupa Mutil koxkor pareja!!! Beti bezain txintxuak eta formalak izaten jarraitu ! Etxekuen partez.



Derea Iñarra
2.001 - 7 - 1

Zorionak eta urte askotarako !!!
Ze moduz dago gure poxpolina. Muxu haundi, haundi, haundi bat. Familixakuen partez.



Gorka Prieto
2x urte 2.001 - 8 - 17
Zorionak eta urte askotarako!!!

Arkatzak ez, labe inglesakin jua bihar dok hik.
Onena haiz tormillo muxuak emoten.
PIL PILEANeko erredakzioetik



Derea Iñarra
2.001 - 7 - 8
Zorionak eta urte askotarako !!!

Irrifarre hori ez galdu inoiz denok alaitzen gaituzu eta. Familixakuen partez.



Guenetxe baserrixan
San Juan sua

Guenetxe baserrixan, Placentxiako beste baserri askotan moduan, San Juan bezperako sua pizteko ohituria bizirik jarraitzen dau.
Zorionak eta segi ohitura hori mantentzen!!
Afpiko errenterua.

Dohaineko Iragarkiak

“DONOSTIAN BI ETXEBIZITZA ALOKATZEN DITUGU UDARAKO (HILABETEA EDO HAMABOSTALDIKA).

Hondartzatik 10 minututara oinez, Egia auzoan. Etxeen ezaugarriak:

LEHEN ETXEA:

Egongela eta hiru logela ditu (ohe bikoitza + 3 ohe arrunt). Beharrezko ekipamendu guztiak ditu (sukaldea, labea, frigorifikoak, labadora, telebista...), leihoek kanpora ematen dute eta berrituta dago.

BIGARRENA:

Egongela eta bi logela (ohe bikoitza + 2 ohe arrunt). Beharrezko ekipamendu guztiak ditu (sukaldea, labea, frigorifikoak, labadora, telebista...), leihoek kanpora ematen dute eta berrituta dago.

Bi etxeetako edozein alokatu edo ikusi nahi izanez gero, harremanetan jartzeko, deitu 617-74-95-09 telefonora (ELENA edo IÑAKI).

Oharra

Iragarkiren bat ipintzia nahi badozu eta ez badakizu nun, hemen daukazu aukeria. Daitu PIL PILEANera segituan, 943 75 13 04 telefonora eta laga iragarri nahi dozuna erantzungailuan. **DOHAIN** da.

ezkondutakuak

Alberto Goenaga eta Veronica Galarraga

Enrique Regilon eta Maria Magdalena Lopez

jaixotakuak

Idoia Hernandez, Miguel Astigarraga, Noelia Cobos, Uxue Ariznabarreta, Garazi Jauntsarats

Zuzenketa Oharra

PIL PILEANEN 35. alian *Alberto Goenaga eta Veronica Galarraga* hildakuen zerrendan ipini genduzen ezkondutakuenian jarri biharrizan. Barkamenak eskatu nahi dotseguz eta eskerrak emon umorez hartu dabelako.

hildakuak

Piedad Madina, Julian Cenitagoya, Lino Fernandez, Juan Maria Arizaga, Clemente Lete, Juana Oregi, Eteivina Cabo

Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu biharko dittuzte bakarrik.
Animatu eta egin zaitte bazkide !

iletargixan gorabeherak

Ilberri



Uztailaren 20ian



Uztailaren 5ian

Ilgora



Uztailaren 27an



Uztailaren 13an

Ilbete

Ilbehera



telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kirolegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkarte	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apai Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz), 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)



autobusak

PESAko autobusen ordutegixa jakitzeko
902 10 12 10

telefonora deitu

Pil Pilean Aldizkariko Harpidetza

Egin biharrekua:

Deitu 943 75 13 04 telefonora eta emon bialtzia nahi dozun horren izen eta helbidia. Gero, sartu 1.000 pezeta (urteko kuota) Euskadiko Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan Pil Pileanen izenian daren kontuetako baten.



Zuen hildakoen eskela, eskerrona edo urteurrena jarri nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Pil Pileanen.

IÑAKI LEJARRETA

txirrindulariarekin berbetan

Maiatzaren 30ean, denok aretoan bildu ginen eta gela bakoitzetik gutariko bat aukeratua izan zen kazetari lanak egiteko, gure galderak botatzeko. Eszenatokian, mahai baten

inguruan gure lagun kazetariak eta inork ezagutzen ez zuen mutil gazte bat.
- *Nor da? galdetzen genion elkarri.*
- *Idearik ez. erantzuna.*

Guk prestaturiko galderei esker asko jakin genuen:

Zer izen eta abizen duzu?

Iñaki Lejarreta

Zenbat urte dituzu?

17 urte. Laister, uztailen 18 egiten ditut.

Nongoa zara?

Berrizkoa

Nora zoaz eskolara?

Durangoko instituto batetara noa.

Zein hizkuntza hitzegiten dituzu?

Euskara, gaztelera eta apur bat ingelesa.

Zein hizkuntza erabiltzen duzu lagunekin hitzegitera-koan?

Euskara. Lagun gehienak euskaldunak ditut. Orain atzerrira joaten naizenez lasterketetan parte hartze-
ra ingelesa ere erabili behar izaten dut, baina ez dakidana mimikaz egiten dut.

Zein kiroletan aritzen zara?

Kirol asko egiten ditut, korrika, mendia, beisbol, baina gehien bat mendiko bizikleta.

Nola ezagutu zenuen Xeta?

Behin bizikletaz Karakatera nindo-
ala galdu egin nintzen eta errekatxo baten inguruan norbaitek galdetzen zidala entzun nuen. Ez nuen ezer ikusten, oso txikia zelako baina berak lagundu zidan berriz ere bidea topatzen. Arrez gero hainbatetan berarekin egoten naiz.

Zenbat urtekin hasi zinan kirol hau eitten?

Ez dakit, beti ibili izan naiz bizikleta .

Zure gurasoek zer ikusia izan al zuten zu kirol honetan aritzeko?

Gurasoek beti animatu izan naute kirola egitera. Bestalde etxean bizikleta inguruan bizi izan gara, lehenengo nire aita, Ismael,



Ikasliak Iñaki Lejarretari galderak egiten, Mari Karmen andereñuak lagunduta.

profesional bezala asko ibili izan da. Berak karrera asko irabazi izan ditu eta trofeo asko ditugu etxean. Nire osaba berriz, Marino, gazteagoa da eta nire aitarekin korritu izan zuen lehenengo urteak, gero bere egindako karrerak jarraitu izan ditugu.



Iñaki Lejarreta Berriztarra Ugaraxoarekin

Sari asko irabazi al duzu?

Oraindik asko ez gaztea naizelako

Zein sari duzu gustokoen?

Mendiko bizikletako munduko txapelketan jasotako zilarrezko domina bakarka, urrezko domina taldeka eta munduko txapeldunen maillota.

Zerk eman dizu amorru gehien?

Munduko txapelketako lasterketan lehena nindoala, azkenengo itzulian jausi egin nintzen eta ezin izan nuen urrezko domina jaso, bakarrik zilarrezkoa.

Hurrengo karrera noiz eta non duzu?

Datorren astebukaeran Logroñon, pistako Espainiako titulurako lasterketa.

Telebistan azaltzen al zara?

Gutxitan, karreraren baten berri ematen dutenean. Irratian ere hitzegin izan dut munduko txapelketako lasterketei buruz mintzatzeko. Baina askotan agertzen naiz egunkarietan eta bizikleta inguruko aldizkarietan.

Orain lagun berri bat dugu, Iñaki Lejarreta. Jakin dugu Logroñon brontzezko domina lortu zuela bakarkako saioan eta urrezkoa harrapaketan Euskadiko selekzioarekin. Ondoren Gallartako San Juan saria ere irabazi zuen.

OLINPIADAK XETArekin

Aurten ere, iaz bezala neguko olinpiadak jokatu ditugu baina udako olinpiadetarako Xeta ere lagun berria izan dugu gure artean.

Neguko olinpiadetan hainbat joku egin ditugu. Batzuk mahai-jolasak izan dira: hiru marran, zotz txinarrak, domino, kartak. Beste batzuk, eguraldi ona egiten zuenean, kanpoko jolasak: sokasaltoan, musuzapika, kanposantua. Neguko olinpiadetan berdeen taldeak



lortu zituen puntu gehien, ondoren gorriek, gero urdinek eta azkenik horiek.

Udako olinpiadak hiru egunetan jokatu genituen. Bertan erreleboak, baloia oinekin eraman, kaskara batzea, zehatz-mehatz zenbaki bat asmatu, hitzak



sortu eta esamoldeak errepikatu egin behar izan genituen.


Kurtsoko azken egunean antzerki emanaldia izan genuen eta Etzozira ezin ginanez joan obretan ari zirelako, eskolako jolastokian erromerixa ospatu genuen. Han aurtengo 2.001.go Euskal




Olinpiadetako sariak banatu zizkiguten. Kopak honela banatu ziren: berdeek argienena, horiek berriz lehiatsuenena, urdinak azkarrenena eta gorriek trebeenena. Bertan, kremaleratik eskegitzeko, Xetaren irudia duen zintzilikarioa jaso genuen guztiok opari moduan.

Datorren urteko beste Olinpiadeen zain geratu beharko gara.





kontzertuak



zinema



erakusketak



antzerkia



ikastaroak



afariak



ibilaldiak



internet



dantza



erosketak




egonaldiak


Zure aisialdirako gida



Disko guzti hauek Gaztelupe
tabernan dituzu salgai



M-N EZTEN:
TALDE BERRIA / DISKO BEREZIA



PETTI:
MAISUTASUN AKUSTIKOA




NON DEMONDRE:
ROCK INTELIGENTEA
CDROM INTERAKTIBOAREKIN



GAZTELUPEKO HOTSAK DISKO ETXEA / TEL.: 943.75.30.16 FAXA: 943.75.01.39 / GAZTELUPEKO@HOTSAK.COM /

BERTSOLARIIXEN TXOKUA



Lazkao Txiki eta Lizaso San Andresen

JOSE MIGEL IZTUETA "LAZKAO TXIKI"

Baserri huts bati
Bertsolari-txapelketa nagusia, Donostia, 1967-VI-11.
Gai: Hor aurrean baserri huts bat daukazu; famili guztia
kalera jua da bizitzera.

1) "Oh, baserri txo, hartuko dezu
bihotz barrenetikan min,
eskerrak mirik ez dezun eta
ezin dezu gaur hitzegin;
zenbait fameli hazi dezuen
jainkuak bakarrik jakin,
orain bakarrik uzten zaituzte,
ondotik danak aldegin.

2) Zeure semiak estaltzen hartu
dezu hamaika enrero,
zure babesez gordetzen ziran
egunero ta gauero;

hainbat fabore egin dezu ta
ta esker txar hori gero,
oh, basarria, gaizki zaude gaur
ondo pentsatu ezkeru.

3) Zuk eman dezu hainbat haurtxoren
babesa eta epela,
ikusten zaitut gaur egunean
eskerrik gabe zaudela;
bertsolaria minberatzen da
zu ikustian honela,
gaur basarri hau ikusten det nik
gure euskera bezela."

Jose Migel Iztueta "LAZKAO-TXIKI" IRRIZ ETA MALKOZ II liburutik.
Antonio Zabala 1.994, Sendo argitaldaria eta Auspoa Liburutegiak
argitaratua.